

Eskola sistema, familia eta giza eskubideak eraldatzen ari den gizartean

1. Oinarrizko datuak

- **Irakasgaia:** Eskola sistema, familia eta giza eskubideak eraldatzen ari den gizartean
- **Modulua:** Modulu Generikoa
- **Izaera:** Derrigorrezkoa
- **ECTS kredituak:** 3
- **Iraupena:** 3 aste
- **Irakaslea:** Eider Goiburu Moreno

2. Irakasgaiaren laburpena

Irakasgai hau modulu generikoan kokatzen da eta modulu honetako beste irakasgaiekin batera formazio psikopedagogikoa eskaintzen du. Irakasgai honetan testuinguru soziala, familia eta hezkuntzaren arteko harremana aztertuko dugu giza eskubideak kontuan izanik eta ikuspegi kritikoa sustatuz. Aldi berean, sozializazio agente ezberdinekin harremanak modu egokian kudeatzeko baliabideak garatuko ditugu.

3. Gaitasunak

Oinarrizko konpetentziak

CB6. Ideiak garatu eta/edo aplikatzean originalak izateko oinarria edo aukera ematen duten ezagutzak edukitzea eta ulertzea.

CB7. Ikasleek beren ikasketa-arloarekin lotutako testuinguru zabalagoetan (edo diziplina anitzekoetan) eskuratutako ezagutzak eta arazoak konpontzeko duten gaitasuna aplikatzen jakitea.

CB8. Ikasleak ezagutzak integratzeko eta iritziak formulatzearen konplexutasunari aurre egiteko gai izatea, informazio osatugabea edo mugatua izanik, beren ezagutzak eta iritziak

aplikatzearekin lotutako erantzukizun sozial eta etikoei buruzko hausnarketak barne hartzen dituena.

CB9. Ikasleek beren ondorioak – eta horiek sostengatzen dituzten azken ezagutzak eta arrazoiak – publiko espezializatuei eta ez-espezializatuei jakinarazten jakitea, modu argian eta anbiguotasunik gabe.

CB10. Ikasleek ikasteko trebetasunak izatea, ikasten jarraitu ahal izateko, neurri handi batean beren kabuz edo autonomiaz zuzendu beharko duten moduan.

Zeharkako kompetentziak

CT1988 - Giza eskubideen, berdintasunaren, generoaren, kultura-aniztasunaren eta eleaniztasunaren aldeko jarrera proaktiboak sortzea.

CT1989 - Espezialitatearen eremuko berezko lengoaia zientifikoa erabiltzea.

CT1991 - Irakaskuntzari balioa ematea eta garapen profesionala eta bizialdi osoko ikaskuntza sustatzea.

Kompetentzia orokorrak

- Informazioa (ahozkoa, inprimatutakoa, ikus-entzunezkoa, digitala edo multimedia) bilatzea, lortzea, prozesatzea eta komunikatzea; informazio hori ezagutza bihurtzea.
- Ikasketa-guneak diseinatzea eta garatzea, arreta berezia eskainita honako arlo hauei: ekitatea, heziketa emozionala eta baloreena, eskubide- eta aukera-berdintasuna gizon eta andreen artean, hiritar-heziketa eta jendartean bizitzea erraztuko duten giza eskubideekiko begirunea, erabakiak hartzea eta etorkizun iraunkorra eraikitzea.
- Estrategiak eskuratzea ikaslearen ahalegina sustatzeko eta bere kabuz zein beste batzuekin ikasteko gaitasuna indartzeko, eta, orobat, pentsatzeko eta erabakitzeke trebetasunak garatzeko; horretarako, haren autonomia, konfiantza eta iniziatiba sendotuko dira.
- Ikasgelako elkarrekintza eta komunikazio-prozesuak ezagutzea; beharrezko jendarte-trebetasun eta -kompetentziak bereganatzea, ikasgelan ikasketa eta bizikidetzak bultzatzeko eta diziplina-arazoei aurre egiteko eta gatazkak konpontzeko.
- Irakaskuntzaren ezaugarri historikoak ezagutzea eta aztertzea, baita haren egungo egoera, aurreikuspenak eta garai bakoitzeko errealitate sozialarekiko harremana ere.
- Familiei informazioa eta aholkuak eskaintzea beren seme-alaben ikaste-irakaste prozesuari buruz zein haien orientazio pertsonal, akademiko eta profesionalari buruz.

Kompetentzia espezifikoak

CE1512 - Hezkuntza ingurunearekin erlazionatzea eta familiaren eta komunitatearen hezkuntza-funtzioa ulertzea, bai gaitasunak eta ikaskuntzak eskuratzean, bai hezkuntzan, eskubideak eta

askatasunak errespetatzean, gizonen eta emakumeen arteko eskubide- eta aukera-berdintasunean eta desgaitasunen bat duten pertsonen tratu-berdintasunean eta diskriminaziorik ezan, edo gizarteratzeko arriskua ekar dezakeen beste edozein inguruabar pertsonal edo sozialetan.

CE1513 - Familiaren bilakaera historikoa, mota desberdinak eta familia-testuinguruak hezkuntzan, oro har, eta eskola-errendimenduan, bereziki, duen eragina ezagutzea.

CE1514 - Ikastetxea familiekin koordinatzeko neurriak hartzea, eta haiek hezkuntza-prozesuetan benetan parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko estrategiak diseinatzeko.

CE1573 - Espezializazioari dagozkion ikasgaien plangintzan, irakaskuntzan eta ebaluazioan esperientzia hartzea.

CE1574 - Irakaskuntzan ahozko eta idatzizko adierazpena ondo menderatzen dela egiaztatzea.

CE1575 - Ikaskuntza eta bizikidetzaren erraztuko duen giroa sustatzeko beharrezkoak diren trebetasun eta trebetasun sozialak menderatzea.

CE1579 - Gaitasun horiek eta gainerako jakintzagaiei dagozkienak master amaierako lanean islatuko dira. Lan horrek aipatutako irakaskuntza guztietan lortutako prestakuntza konpentsatuko du.

CE1580 - Ikasleen ezaugarriak, gizarte-testuinguruak eta motibazioak ezagutzea.

CE1585 - Gure herrialdeko hezkuntza-sistemaren bilakaera historikoa ezagutzea.

CE1587 - Heziketa emozionaleko ekintzak sustatzea, balioetan eta herritarren prestakuntzan oinarrituta.

CE1588 - Ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren definizioan eta jarduera orokorretan parte hartzea, kalitatea hobetzeko, aniztasunari erantzuteko eta ikaskuntza- eta bizikidetzaren arazoak prebenitzeko irizpideak kontuan hartuta.

CE1589 - Hezkuntza ingurunearekin lotzea eta familiaren eta komunitatearen hezkuntza-funtzioa ulertzea, bai gaitasunak eta ikaskuntzak eskuratzeari dagokionez, bai eskubideak eta askatasunak errespetatzeari, gizonen eta emakumeen arteko eskubide- eta aukera-berdintasunari eta desgaitasunen bat duten pertsonen tratu- eta diskriminazio-berdintasunari dagokienez.

CE1590 - Familiaren bilakaera historikoa, mota desberdinak eta familiaren testuinguruak hezkuntzan duen eragina ezagutzea.

CE1591 - Gizarte-trebetasunak eskuratzeko familia-harremanetan eta -orientazioan.

4. Irakasgai-zerrenda (gaitegia)

1.- Hezkuntza eraldatzen den jendartean

2.- Familia eta hezkuntza

3.- Hezkuntza eta giza eskubideak

4.- Hezkuntza sistema: Ezaugarri historikoak eta egungo egoera

5. Bibliografia

Aguirre, A. M., Samada, C., del Carmen, M., Fernández, S., & Silvero, M. (2016). Familia, escuela y sociedad: Manual para maestros. Universidad Internacional de La Rioja.

Assadourian, E. (2017). Educación Ecosocial: cómo educar frente a la crisis ecológica. Informe Anual del WorldWatch Institute, Educación ecosocial, 25-49. [<https://www.fuhem.es/wp-content/uploads/2018/04/SitMundo-2017-EducacionEcosocial-E.Assadourian.pdf>]

BONA, C. (2015): La nueva educación. Penguin Random House Grupo Editorial. Barcelona.

Castells, M. (1997). La era de la información Vol 1: La sociedad red. Alianza, Madrid.

Castells, M. (1998). La era de la información Vol 2: El poder de la identidad. Alianza, Madrid.

de Bringas, A. M. (2006). Giza eskubideen hezkuntzaren teoria eta praktika (Vol. 8). Alberdania.

FERNANDEZ ENGUITA, M. (2001): Educar en tiempos inciertos. Ediciones Morata. Madrid.

GERVER, R. (2010): Crear hoy la escuela del mañana. La educación y el futuro de nuestros hijos. Biblioteca de Innovación Educativa, SM. Madrid.

HARGREAVES, A. (2003): Enseñar en la sociedad del conocimiento. Ediciones Octaedro. Barcelona.

Imaz Bengoetxea, J. I. (2019). Hezkuntzaren Soziologia. UEU.